



AYUNTAMIENTO
DE
31740 SANTESTEBAN
(Navarra)

IRAGARKI TAULA

Doneztebe

lanak; “Bidegorria eta oinezkoentzako bidea den Bidasoako Bide Berdea egokitzea Donezteberen eta Elizondoren tartean”. Desjabetze-espedienteari eta proiektuaren eraginpean dauden ondasunen eta eskubideen zerrendari hasierako onespina ematea. Doneztebeko Udalaren herri-izaerako lursailen eta/edo natura-espazioen kalifikazio juridikoaren aldaketa onartzea; eremu horiek proiektuaren eraginpean daude, herri-onurako ondasun bihurtzen baitira bide publiko gisa.

Doneztebeko Udaleko osoko bilkurak, 2024ko irailaren 30ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin, honako AKORDIOA hartu zuen:

Lehena.- “Bidegorria eta oinezkoentzako bidea den Bidasoako Bide Berdea egokitzea Donezteberen eta Elizondoren tartean” izeneko lanek eraginpean hartutako ondasunen eta eskubideen zerrenda onartzea hasiera batean, Doneztebe udalerriari dagokionez, eta proiektu horrek eraginpean hartutako ondasunen eta eskubideen desjabetze-espedienteari hasiera ematea. Zerrenda hori akordio honen I. eranskinean dago jasota.

Bigarrena.- Proiektuak bere eraginpean hartzen dituen ondasunak eta eskubideak onura publikokoak direla eta horiek okupatu behar direla aitortzea eta adieraztea, proiektua onartzean inplizituki jasota egonik.

Hirugarrena.- Hasiera batean onartzea proiektuaren eraginpean dauden lursailen eta/edo Doneztebeko Udalaren herri-izaerako lurren kalifikazio juridikoa aldatzea, bide publiko gisa (“Bidasoako Bide Berdea”) jabari publikoko ondasun-izaera hartzeari dagokionez, udalerri honetatik igarotzen den tartean.

Laugarrena.- Proiektuaren eraginpean dauden titularren, ondasunen eta eskubideen zerrenda (akordio honen 1. eranskinean ageri da) jendaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean. Epe horretan, espedienteak eragiten diela irizten dioten pertsonak bertan agertu ahal izanen dute eta egoki iriztitako ohar edo alegazio guztiak egin ahal izanen dituzte, eta argitaratutako zerrendan egon daitezkeen akatsak zuzentzeko beharrezkoak diren datuak aurkeztu ahal izanen dituzte idatziz; horretarako, dokumentazio teknikoa (KREAM S.COOP. ingeniartza-bulegoko Juan Carlos Ovalle Cortisoz jaunak, bide, ubide eta portuetako ingeniariak 2024ko uztailean idatzitako obra-proiektu teknikoa) eskuragarri izanen dute udal honen bulegoetan.

Bosgarrena.- Akordio honen HIRUGARREN atalean jasotako erabakia jendaurrean jartzea hilabeteko epean, espedienteari alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Seigarrena.- Erabaki hau eta horri lotutako aipatutako 1. eranskina (titularren, ondasunen eta eskubideen zerrenda jasotzen duena) argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Foru Komunitatean zabalpen handien duten egunkarietan eta Doneztebeko Udalaren iragarki-taulan eta web orrian, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 18. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Erabaki honekin batera atxiki da, 1. eranskin gisa, “eraginpean dauden ondasunen eta eskubideen zerrenda”.

1. ERANSKINA.–PROIEKTUAK UKITUTAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

LURZATIA	TITULARRA	UDALERRIA	POLIGONOA	LURZATIA	AZPILURZATIA	LURZATI MOTA	AZALERA. BEHIN- BETIKO OKUPAZIOA (m ²)	AZALERA. ALDI BATERAKO OKUPAZIOA (m ²)
DO-01	Lazcano Goñi Maria Luisa	Doneztebe	2	267	A	Hiri- lurzatia	153,19	82,04
DO-02	Fernandez Lamana Gonzalo Pedro Tellechea Erlanz Alicia Maria	Doneztebe	2	268	A	Hiri- lurzatia	58,77	34,08
DO-03	Goyeneche Mutuberria Miguel Maria	Doneztebe	2	269	A	Hiri- lurzatia	71,77	37,50

Donezteben, 2024ko azaroaren 4ean.-
Alkatea,

M^a. Aranzazu Arregui Alberro.